



I. Berdintasunerako Lurralde Plana


Erroibar, Artzibar, Aezkoa eta Orotz-Beteluko udalerriek konpromisoa hartu dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin. Hori dela eta, datozen 6 urteetarako (2026-2031) I. Berdintasunerako Lurralde Plana egin dugu.

Tresna sendoa da hemendik aurrera berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko, modu koordinatuan, jarraituan eta gure lurraldea osatzen duten 12 toki-erakundeen konpromiso politikoarekin.



Prozesuan zehar herritarren, teknikarien, ordezkari politikoen eta gizarte-eragileen parte-hartzea izan dugu. Orain emaitza nagusiak eta hurrengo urratsak partekatu nahi ditugu.

Zer hauteman da diagnostikoan?



Berdintasunaren arloko aurrerapenak:

- **Erakundeen laguntza:** berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan baliabideak eta zerbitzuak sortzea, eta berdintasunak presentzia handiagoa izatea.
- **Avurrerapen komunitarioa:** herritarrak gehiago kontzientziaztea, sareak eta berdintasunerako espazioak sortzea.
- **Genero-indarkeria:** sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak bultzatu dira.
- **Koedukazioa:** programei eustea funtsezkoa da berdintasunean oinarritutako hezkuntza ziurtatzeko eta genero-indarkeria haurtzarotik prebenitzeko.



Ohituraren pisuak bere horretan dirau:

- Desberdintasunek eta matxismoak bere horretan diraute.
- Jai-eremuetako indarkeria eta eraso sexisten normalizazioak jarraitzen du.



Berdintasunerako oinarrizko baliabideak:

- Lurraldeak Genero Indarkeriaren aurkako Koordinazio Protokoloa, Koordinazio Mahaia, Berdintasunerako I. Lurralde Plana eta bideratzeko baliabide espezializatuak ditu.

Zer hobekuntza arlo identifikatu ditugu?

- **Berdintasunaren arloko aurrerapena:** Aurrerapenak mugatuak dira oraindik. Beharrezkoa da konpromiso politikoa indartzea eta berdintasunari baliabide egonkorak, koordinazioa, estrategia, prozedurak eta aurrekontua ematea.
- **Egiturak:** Koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko egiturak eta sistemak indartu behar dira.
- **Prestakuntza:** Oro har, politikariek eta teknikariek ez dute jaso berdintasunean dituzten erantzukizunei buruzko prestakuntzarik, ezta hori aplikatzeko moduari buruzko prestakuntzarik ere.
- **Baliabideak eskuratzea:** Zerbitzuetarako eta baliabideetarako sarbidea hobetzeko beharra: garraio-zailtasunak, mugikortasuna eta zerbitzuetarako sarbidea, itxaron-zerrendak.

Zer egingo dugu?

Plana abian jartzea.

Planak bi begirada ditu: barrura begira, gure toki-erakundeen barne-antolaketa, begirada hori da Planaren erdigunea eta "Tokiko Gobernantza" du izena; eta kanpora begira, kanpoko esku-hartzea, 3 zehar-lerroekin:

- Antolaketa sozioekonomiko berdinzalea eta jasangarria (zainketak, enplegua eta jasangarritasuna)
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko udalerrriak.
- Gizarte zibilaren protagonismoa eta inplikazioa berdintasunaren eraikuntzan eta sendotzean (hezkidetzak, kirola, kultura, emakumeen eta/edo feministen elkarteak, maskulinitateak, emakumeen parte-hartzea bizitzan publikoan eta berdintasunezko herritartasuna).

I. Plan honetako jarduera nagusiak honako hauek dira:



Berdintasunarekin konpromiso handiena duten udalak

- Berdintasun Arloa eta Berdintasun Teknikariaren figura sendotzea, beharrezko baliabideak jarrita.
- Berdintasunaren aldeko udalen arteko udalaren kudeaketan eta erabakietan.
- Berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea udal-erabakien kudeaketan eta hartzean.
- Udalaren politiketan eta jardueretan emakumeen eta gizonen beharrak kontuan hartzea.



Erakundeen erantzuna hobetzeko prestakuntza

- Politikariei eta udal-langileei berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren, araudiaren eta erantzukizun publikoen inguruko prestakuntza ematea.
- Teknikariak eta profesionalak prestatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta artatzeko.



Herritarrak berdintasunaren eraikuntzan inplikatzeko

- Herritarrak berdintasunaren alde sentsibilizatzea eta haien parte-hartzea sustatzea.
- Emakumeak elkartzeko, parte hartzeko eta ahaldundutarako guneak sortzea.
- Gizonak berdintasunezko harremanen eraikuntzan inplikatzeko, La Contrapasa berdintasunaren aldeko gizonen taldea bezalako ekimenak babestuz.



Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta aurre egitea

- Indarkeriaren prebentzioa eta detekzioa hobetzea, eta eskura dauden baliabideak ezagutaraztea.
- Festetan eta aisialdirako guneetan gerta daitezkeen eraso matxistei aurre egiteko protokolo bat sortzea.
- Toki-erakundeetan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat sortzea.